

AHO KORAPILOAK ETA ASMAKIZUNAK

Deskribapena: Aitor Abaroa, Ane Pedruzo eta Argitxu Camus berriemaileak antzoki bateko eszenatokian zutik ageri dira bata bestearen ondoan.

Kike (off ahotsa): Jolas gaitezen euskararekin! Bota ezazue asmakizuna, aho korapiloa edo asmatutako hitzen bat.

Argitxu Camus: “Bai? Nik? Norbaitek hasi behar du eta tronpatzen banaiz barkatu aitzinetik. Beraz, “Akerrak adarrak okerrak ditu, okerrak adarrak akerrak ditu...” eta beste bi badira, ez naiz gogoratzen.”

Ane Pedruzo: “Baina oso ondo egin dozu, segi horrela!”

Aitor: “Neuk pe, neuk pe badaukat bat. Guk badakizue lekeittarrak eta ondarrutarrak oso ondo eruten gara, lagun handiak gara eta esaten dabe ondarrutarrak holako zeozer: “Gustaten gastan gaztai gasta in gasta gastaien...” bueno, holako zeoze.”

Ane Pedruzo: “Bueno, ba, nik asmakizun bat kontatuko dizuet, da: “Zotz txikia eta gainean du gurpila eta asmakizun honetan badago pila” zer da? Tik-tak, tik-tak, tik-tak.”

Aitor: “Nik neuk ideiarik pez”

Ane: “Benetan? Oso erreza da!”

Aitor: “Bota!”

Ane: “I-a, badago pila! Zotz txikiia! Gainean du gurpiila! Eta asmakizun honetan badago pila! Aii”

Aitor: “Klaro, klaro”

Ane: “Bueno, ez da ezer gertatzen, beste batean...”